



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2019KO URRIAREN 10EKO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK

1. (deialdiko alde aurreko gaia) Behin betiko ebaztea urriaren 3ko osoko bilkurako bozketan izandako berdinketak, Erregelamenduaren 92.1 artikulua adierazitakoari jarraituz, Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamenari dagokionez, Euskadiko hondakin-urak saneatzeko proiektuen kofinantzaketaren gardentasunari buruz.
[11\11\02\01\00576]

EH Bildu eta EP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

94/2019

- "1. Eusko Legebiltzarraren iritziz, erkidegoko entitate kudeatzaile batzuek eta besteek –partzuegoak, mankomunitateak, udalak eta kontzejuak– hondakin-urak saneatzeko dituzten proiektuak finantzatzeko Eusko Jaurlaritzak bideratzen dituen funtsak deialdi publiko baten bidez gauzatu behar dira, zeinetara entitate guztiak aukera beretan aurkeztu ahal izango diren, irizpide objektiboen arabera.
2. Eusko Legebiltzarraren iritziz, Eusko Jaurlaritzak kofinantzatzeko dituen inbertsioek helburu izan behar dute erkidegoko ur-masa guztietako uraren kalitatea eta egoera ekologikoa orokorki hobetzea, bai eta inbertsioaren inpaktua optimizatzea eta hark gizarteari eta ingurumenari mesede egitea ere.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala, sei hilabeteko epean, 1. puntuari aipaturiko deialdi publiko arautuko duen dekretuaren zirriborroa, non irizpide objektibo ebalagarriak jasoko baitira, eskura dauden funtsak modu objektibo eta gardenean banatzeko.
4. Aipaturiko dekretuaren edukia osatzeko, Eusko Jaurlaritzak legebiltzar-taldeek eta

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO
EL DÍA 10 DE OCTUBRE DE 2019

1. (asunto previo de la convocatoria) Resolución definitiva de los empates ocurridos en las votaciones del pleno celebrado el día 3 de octubre, de acuerdo con el artículo 92.1 del Reglamento, en relación con la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la transparencia en la cofinanciación de los proyectos de saneamiento de aguas residuales en Euskadi.
[11\11\02\01\00576]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu y EP.

94/2019

- "1. El Parlamento Vasco considera que la financiación de los fondos dedicados por el Gobierno Vasco a proyectos de suministro y saneamiento de aguas residuales de los distintos entes gestores de la comunidad –consorcios, mancomunidades, ayuntamientos y concejos– debe realizarse a través de una convocatoria pública a la que los diferentes entes puedan concurrir en igualdad de oportunidades y de acuerdo a criterios objetivos.
2. El Parlamento Vasco considera que las inversiones cofinanciadas por el Gobierno Vasco deben orientarse hacia la mejora global de la calidad de las aguas y del estado ecológico de todas las masas de agua de la comunidad, buscando optimizar el impacto de la inversión y su retorno social y ambiental.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a presentar, en el plazo de seis meses, un borrador de decreto que regule la convocatoria pública referida en el punto 1, en el que se recojan los criterios objetivos evaluables que permitan realizar una distribución objetiva y transparente de los fondos disponibles.
4. A fin de completar el contenido de dicho decreto, el Gobierno Vasco abrirá un plazo





toki-erakundeen ekarpenak jasotzeko bi hilabeteko epea irekiko du ebazpen hau onartu eta gero".

de dos meses, a partir de la aprobación de esta resolución, para la recepción de aportaciones de los grupos parlamentarios y de las entidades locales".





2. (deialdiko 1. puntua) 2003tik Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kudeaketako eskola-jantokien zerbitzu-ematea esleitzeko prozesua eta eratorritako erantzukizun politikoak ikertzeko batzordearen irizpena. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\10\03\00\00001]

Irizpena onetsi da.

2. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la comisión de investigación del proceso de adjudicación de la prestación de los servicios de comedores escolares de gestión directa del Gobierno Vasco desde el año 2003 y responsabilidades políticas derivadas.
[11\10\03\00\00001]

Aprobado el dictamen.





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA, 2003TIK EUSKO JAURLARITZAREN ZUZENEGO KUDEAKETAKO ESKOLA-JANTOKIEN ZERBITZU-EMATEA ESLEITZEKO PROZESUA ETA ERATORRITAKO ERANTZUKIZUN POLITIKOAK IKERTZEKO BATZORDEAREN IRIZPENARI BURUZ

ACUERDO DEL PLENO EN RELACIÓN CON EL DICTAMEN ELABORADO POR LA COMISIÓN DE INVESTIGACIÓN DEL PROCESO DE ADJUDICACIÓN DE LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE COMEDORES ESCOLARES DE GESTIÓN DIRECTA DEL GOBIERNO VASCO DESDE EL AÑO 2003 Y RESPONSABILIDADES POLÍTICAS DERIVADAS

AURREKARIAK

LEHENA. Eusko Legebiltzarrak, 2018ko otsailaren 8an egindako osoko bilkuran, 6/2018 legez besteko proposamena onetsi zuen, 2003tik Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa zuzeneko eskola-jantokiaren zerbitzu-ematea esleitzeko prozesuari dagozkien erantzukizun politikoei buruzko ikerketa-batzorde bat eratzearen gainean, honako testu honen arabera:

"Eusko Legebiltzarrak erabaki du ikerketa irekitzea, horretarako batzorde bat eratzuz, zeinaren helburua izango baita osotara ikertzea Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa zuzeneko eskola-jantokiaren zerbitzuen kontratazioa, 2003. urtetik, Auzo Lagun S. Coop., Cocina Central Goñi SL, Cocina Central Magui SL, Eurest Colectividades SL, Eurest Euskadi SL, Tamar Las Arenas SA, Gastronomía Cantábrica SL eta Gastronomía Vasca SA enpresei emanaz bukatzen den prozesua, baita ikertutako gertakarien ondoriozko erantzukizun politikoak zehazteko asmoz garrantzitsutzat jotzen diren beste alderdi guztiak ere".

Hala, 2018ko apirilaren 27an, batzordearen lanak hasi ziren, eta urte horretako abenduaren 18an amaitu ziren, batzordekideek eskatutako dokumentazio ugaria aztertu ondoren eta bederatzita lan-bilkuratan hogeita hamaika agerraldi entzun ondoren.

BIGARRENA. Administrazioaren jardunaren abiapuntua da emandako dokumentazioa aztertzeatik ateratako aurretiko ondorio bat, bai eta batzordean jasotako zenbait lekukotasun ere, hezkuntza-sistemak pertsonen prestakuntzan bete behar duen funtsezko zereginari buruzkoak, eta

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 8 de febrero de 2018, aprobó la proposición no de ley 6/2018, sobre constitución de una comisión de investigación en relación con las responsabilidades políticas relativas al proceso de adjudicación de la prestación de los servicios de comedores escolares de gestión directa del Gobierno Vasco desde el año 2003, con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco acuerda la apertura de una investigación, mediante la constitución al efecto de la correspondiente comisión, que tendrá por objeto la investigación de todo el proceso que culmina con la contratación de los servicios de comedores escolares de gestión directa del Gobierno Vasco, desde el año 2003, a las empresas Auzo Lagun S. Coop., Cocina Central Goñi SL, Cocina Central Magui SL, Eurest Colectividades SL, Eurest Euskadi SL, Tamar Las Arenas SA, Gastronomía Cantábrica SL y Gastronomía Vasca SA, así como cuantos aspectos se consideren relevantes a fin de determinar las responsabilidades políticas que se deriven de hechos investigados".

Así, el pasado 27 de abril de 2018, se dio inicio a los trabajos de la comisión, que concluyeron el 18 de diciembre de ese mismo año, tras el estudio de la abundante documentación solicitada por los miembros de la comisión y las treinta y una comparencias concretadas en nueve sesiones de trabajo.

SEGUNDO. La actuación de la Administración parte de una consideración previa que se colige del estudio de la documentación facilitada, así como de algunos de los testimonios recogidos en comisión, sobre el papel fundamental que el sistema educativo debe cumplir en la formación de





balio du testuinguruan jartzeko zeinen garrantzitsua den zer bitartekorekin eta zer egoeratan egin behar den hezkuntza-egintza bera. Izan ere, azken urteetan gertatu diren aldaketa sozial eta kultural sakonek bestelako familia-ingurune bat konfiguratu dute, eta, horrenbestez, hezkuntza ere baldintza desberdinetan ematen da. Testuinguru horretan, zerbitzu osagarriak sortzen joan dira, hala nola jantoki-zerbitzua, garraio-zerbitzua eta eskolaz kanpoko jarduerak. Horiek guztiek, beren ezaugarriak direla eta, bi eginkizun betetzen dituzte: heztea eta zerbitzu bat ematea, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Ondorioz, jantoki-zerbitzuaren gero eta eskari handiagoa dugu, errealitate sozial berriak eta 2008an piztutako krisialdi ekonomikoaren eraginez familia askok pairatzen dituzten zailtasun ekonomikoek bultzatuta. Adibide gisa, joan den ikasturtean, egunean ia laurogeita hamabost mila menu zerbitzatu ziren.

Hezkuntza Sailak, zerbitzu hori antolatzearen, aurretik zegoen zerbitzuaren heterogeneotasunak sortutako egoera eta ondorioei erantzuna ematearren eta baliabide publikoak optimizatzearen, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen agindua¹ eman zuen; agindu horrek indarrean jarraitzen du.

Agindu horrek kudeaketa zuzeneko sistema ezarri zuen jantoki-zerbitzua emateko sistema bakar eta nahitaezkoztat, eta enpresen homologazioa, berriz, kontratazio-sistematzat. Ikerketa-batzorde honek hartzen duen denboraldian, lau homologazio edo esparru-akordio egin dira, bakoitza bere kontratu eratorriekin, zeinak urtero egiten baitziren ikasturteka, 2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetan izan ezik, non ez baitzen eratorririk egin, esparru-akordioa errekurrituta zegoelako.

HIRUGARRENA. Gertakariaren errepasoa egitearren, 2013ko urriaren 14an, salaketa bat sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) erregistroan, Comercial Aibak TRS SL enpresaren legeko ordezkariak aurkeztua, ustez Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) aurkakoak ziren egintzengatik.

2003tik 2014ra Hezkuntza Sailaren mende

las personas, y que sirve para poner en contexto la vital importancia de los medios y las circunstancias en las que el propio acto educativo debe realizarse. Así, los profundos cambios sociales y culturales habidos en los últimos años han ido configurando un entorno familiar distinto, y, por ende, la labor educativa se presta en unas condiciones también distintas. En este contexto, han ido surgiendo servicios complementarios, como el servicio de comedor, el de transporte o las actividades extraescolares, que, por sus características, tienen una doble función: la educativa y la de prestación de un servicio, con todas las implicaciones que ello conlleva.

En consecuencia, nos encontramos con una creciente demanda del servicio de comedor, impulsada por la nueva realidad social y por las dificultades económicas que sufren muchas familias a raíz de la crisis económica que sobrevino en 2008. A modo de ejemplo, el pasado curso escolar se sirvieron casi noventa y cinco mil menús diarios.

El Departamento de Educación, con el fin de organizar este servicio, dar respuesta a las situaciones y consecuencias generadas por la heterogeneidad del servicio preexistente y optimizar los recursos públicos, redactó la orden por la que se regulan los comedores escolares de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco³³, que sigue estando en vigor.

Esta orden establecía el sistema de gestión directa como único y obligatorio sistema de prestación del servicio de comedores, y la homologación de empresas como sistema de contratación. En el periodo que abarca esta comisión de investigación se han realizado cuatro homologaciones o acuerdos marco, con sus correspondientes contratos derivados, que se realizaban anualmente por curso escolar, a excepción de los cursos 2011-2012 y 2012-2013, en los que no se realizó derivado alguno por estar recurrido el acuerdo marco.

TERCERO. Haciendo un recorrido de los hechos sucedidos, el 14 de octubre de 2013, tuvo entrada en el registro de la Autoridad Vasca de la Competencia (AVC) la denuncia presentada por el representante legal de la empresa Comercial Aibak TRS, S.L. por actos supuestamente contrarios a la Ley de Defensa de la Competencia (LDC).

Tras una investigación que se centró en las





egon ziren kudeaketa zuzeneko eskola-jantokien zerbitzua kontratatzeko lizitazioak aztertu zituen ikerketa baten ondoren, 2014ko abuztuaren 8an, Lehiaren Euskal Agintaritzak erabaki zuen zehapen-espeditente bat irekitzea (6/2013 Espeditentea) aipatutako zazpi enpresei. Espeditente hori LEAren 2016ko otsailaren 4ko ebazpenarekin amaitu zen. Ebazpen hark baieztatu zuen ikertutako enpresek modu itunduan banatu zutela merkatua eta, Lehiaren Defentsarako Legean oinarrituta, arau-hauste oso larritzat jo zuen praktika hura.

Honela dio, hitzez hitz, administrazio-bidea agortzen zuen ebazpenak: "Egiaztatutaz jotzea LDLren 1.1 c) artikuluko arau-hauste bat, itundutako praktika bat egon delako Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kudeaketako eskola-jantokien zerbitzuaren prestazioari dagokien merkatua banatzeko 2003. urtetik 2011. urtera arte eta 2013. urtetik 2015. urtera arte, konkurrentziaren eta kontratazio publikoaren ikuspegitik praktika horrek berekin daramatzen ondorio legal guztiekin".

LAUGARRENA. Ezarritako zehapenak errekurrutu egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Auzitegiak 2017ko ekaineko epaietan ebatzi zituen erreklamazioak, eta berretsi egin zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren ebazpena. Beraz, baieztatu zuen merkatua banatzeko itundutako praktika bat egon zela, eta enpresa horien jokabideak araua hausten zuela. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 282/2017, 277/2017, 287/2017 eta 267/2017 epaiek arindu egin zuten ezarritako zehapena, "errekurtsoa jarri zuen sozietateak guztiz subjektiboki uste zuelako bere estrategia ez zihoala interes publikoen aurka; izan ere, lehiaketetarako deia egin zuen Administrazioak urtez urte babestu zuen estrategia hura ikuspegi formaletik eta ikuspegi juridiko eta administratibotik, inolako eragozpenik gabe".

EGITATE EGIAZTATUAK

A. ENPRESEN ARTEKO LEGEZ KANPOKO ITUNTZEARI BURUZ

Ikerketa-batzorde honek egiaztatu du egiazkoak direla Lehiaren Euskal Agintaritzak frogatutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko

licitaciones para contratar el servicio de los comedores escolares de gestión directa dependientes del Departamento de Educación desde el año 2003 hasta el año 2014, el 8 de agosto de 2014 la Autoridad Vasca de la Competencia acordó la incoación de un expediente sancionador (Expediente 6/2013) a las siete empresas citadas, que concluyó con la resolución de fecha 4 de febrero de 2016 de la AVC. Dicha resolución afirmó la existencia de una práctica concertada de reparto de mercado por las empresas que fueron investigadas y, con base en la Ley de Defensa de la Competencia, calificó dicha práctica como infracción muy grave.

Dice textualmente en la resolución que ponía fin a la vía administrativa: "Declarar acreditada una infracción del artículo 1.1 c) de la LDC por una práctica concertada de reparto del mercado de la prestación de los servicios de comedores escolares de gestión directa del Gobierno Vasco desde el año 2003 hasta el año 2011 y desde el 2013 hasta el año 2015 con todas las consecuencias legales que conlleva desde la perspectiva de competencia y de contratación pública".

CUARTO. Las sanciones impuestas fueron recurridas ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. El Tribunal resolvió las reclamaciones en sentencias de junio de 2017, ratificando la resolución que ya adoptó la Autoridad Vasca de la Competencia, y confirmando una práctica concertada de reparto de mercado, así como el comportamiento infractor de estas empresas. No obstante, las sentencias 282/2017, 277/2017, 287/2017 y 267/2017 del TSJPV moderaron la sanción impuesta debido a "la creencia puramente subjetiva de la sociedad recurrente de que su estrategia no resultaba contraria a los intereses públicos, pues era refrendada desde el punto de vista formal y jurídico-administrativo, y año tras año, por la Administración convocante de los concursos sin reserva alguna".

HECHOS CONSTATADOS

A. SOBRE LA CONCERTACIÓN ILEGAL ENTRE EMPRESAS

Esta comisión de investigación constata la veracidad de los hechos probados por la Autoridad Vasca de la Competencia y ratificados por el





Justizia Auzitegi Nagusiak berretsitako egitateak. Izan ere, *bid rigging* delakoaren kasu larri bat da. Praktika hori hainbat enpresaren arteko itunean oinarritzen da, merkatua euren artean banatu eta prezioak aldatzeko, zilegi ez den mozkin bat lortzeko asmoz. Legebiltzarrean lekukotasun guztiak entzun ondoren, non Lehiaren Euskal Agintaritzaren egungo eta aurreko ordezkari nagusiek, zehatutako enpresek, Hezkuntza Saileko egungo eta aurreko arduradun politiko eta teknikoek eta bestelako adituek hartu baitute parte, ondorioztatu behar dugu egiaztatuta dagoela itundutako praktika bat egon zela Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kudeaketako eskola-jantokien zerbitzuen prestazioari dagokion merkatua banatzeko, eta Administrazio eskudunak berrespen juridiko-administratibo formala eman ziola praktika horri urtez urte, ez baitzuen ezertxo ere egin.

B. JANTOKIEN ZUZENeko KUDEAKETA-SISTEMARI BURUZ

1. Entzundako lekukotzetan oinarrituz, ikerketabatuzorde honek nabarmendu nahi du badirela eskola-jantokien kudeaketa zuzeneko sistemaren ezaugarri esanguratsu batzuk, ezinbestean eragina izan dutenak, baina ez nahikoa, legez kanpoko ituntze-praktika horretan; hots: lizitazio-prozedura aurretiko homologazioaren bidez egitea, horrek murriztu egiten baitzien enpresei lizitazio-faserako sarbidea, zalantzak² ³ eta baldintzak⁴ ⁵ erabiliz; enpresek lote zehatz batzuk xehetasunez ezagutzea, lizitazioa baino lehen horiek ematen ari zirelako; logistikaren garrantzia zerbitzua esleitzean⁶; lizitazioaren ekoizpen-gaitasun mugatua; eta murriztapen teknikoak, catering beroaren zerbitzua emateko distantziei dagokienez⁷. Nolanahi ere, arrazoi horietako bakar batek ere ez dirudi erabakigarria bere kasa merkatuko prezioak baino askoz prezio altuagoak ezartzeko, eta horien eragin kaltegarria saihestu ahal izango zen gehiago kontrolatu izan balira hala klausula-agiriak nola ezarritako eskakizun administratiboak, bai eta lizitazio-prozesua ere, oro har.
2. Gainera, bildutako testigantzak ikusirik, ondorioztatu daiteke indarrean dagoen eskola-

Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. De hecho, se trata de un caso grave de *bid rigging*, consistente en la concertación entre varias empresas para repartirse el mercado y alterar los precios con el fin de obtener un beneficio ilícito. Una vez escuchados todos los testimonios en sede parlamentaria, en los que han participado las máximas responsables –actual y anterior– de la Autoridad Vasca de la Competencia, las empresas sancionadas, responsables políticos y técnicos actuales y anteriores del Departamento de Educación, así como otras personas expertas, hemos de concluir que queda acreditada la práctica concertada de reparto del mercado en la prestación de los servicios de comedores escolares de gestión directa del Gobierno Vasco y el refrendo formal jurídico-administrativo que la Administración competente hizo año tras año a la citada práctica con su manifiesta inacción.

B. SOBRE EL SISTEMA DE GESTIÓN DIRECTA DE COMEDORES

1. Esta comisión de investigación quiere destacar, de acuerdo con los testimonios escuchados, la existencia y relevancia de ciertas características del sistema de gestión directa de los comedores escolares que han contribuido, de forma necesaria pero no suficiente, a esta práctica concertada ilegal, como son: el procedimiento de licitación mediante homologación previa, que restringía el acceso de empresas a la fase de licitación, empleando criterios³⁴ ³⁵ y requisitos³⁶ ³⁷ cuando menos cuestionables; el conocimiento detallado por las empresas de ciertos lotes que cada una de ellas ya venía prestando anteriormente a la licitación; la importancia de la logística en la adjudicación³⁸ del servicio; la limitada capacidad productiva de los licitantes; y la restricción técnica en cuanto a las distancias de prestación del servicio de catering en caliente³⁹. En todo caso, ninguna de estas causas parece determinante para posibilitar por sí sola el establecimiento de precios muy por encima del mercado, y su efecto perverso habría podido evitarse mediante un mayor control tanto de los pliegos como de las exigencias administrativas impuestas, así como del proceso de licitación en su conjunto.
2. Además, los testimonios recabados permiten concluir que el sistema de gestión directa de





jantokien zuzeneko kudeaketa-sistemak, nahiz eta balio izan zuen ikastetxe asko eta askori zerbitzu integrala (sukaldea, garraioa, zerbitzua eta zaintza) ematen zaiela bermatzeko, eta nahiz eta elikaduraren segurtasun faltaren kasu posibleen aurrean babes-maila ona eman, praktikan beste gabezia batzuk eragin dituela, zerbitzuaren kudeaketarekin lotutakoak, hala nola menuen ezaugarri organoleptiko eta nutrizionalen kalitatearen inguruko kezak, hobetzeko modukoa baita; jantokiko gehiegizko zarata-maila; kontratatutako pertsonen lan-baldintza kaskarren ondoriozko gatazkak; eta ikastetxeen autonomia eza, zerbitzua emango duen enpresa aukeratzeari dagokionez.

3. Egungo sistemaren sorreran duen garrantzia dela eta, bereziki aipatu behar da ikastetxeetatik pixkanaka desagertzen ari direla eskola-sukaldeak. Zuzeneko kudeaketa-sistema ezarri zenetik, Hezkuntza Sailak onartu egin du edo, are, bultzatu⁸, sukaldeak desagertzea; ondorioz, ikastetxeek gero eta mendekotasun handiagoa daukate janari beroa eskaintzen duten catering-zerbitzuekiko. Zerbitzu hori ezin eman daiteke prestaketa-puntutik 50-60 kilometrotik gorako distantzietan, logistika-eta garraio-sistemak ez dutelako bermatzen elikagaiak gutxienez 65 °C-ko temperaturan mantenduko direla, hori izanik elikagaien segurtasun-arauak betetzeko gutxieneko atalasea. Alabaina, batzordearen bilkuretan entzun diren testigantzetan, inork ez du defendatu catering beroak elikagaien segurtasun handiagoa ematen duenik catering hotzak baino edo menuak *in situ* prestatzeak baino⁹. Beraz, ondorioztatu behar da eskola-sukaldeak desagertzeak, sistema orokorrean hobetu ez badu ere, zeharka eragina izan duela ikertutako kolusio-praktikak agertzen lagundu duten baldintzak sortzeko¹⁰.

C. ERANTZUKIZUN POLITIKOEI BURUZ

1. Ikerketa-batzordearen xede nagusia denez zehaztea ea eskola-jantokietako irregularitasunak Auzo Lagun S. Coop., Cocina Central Goñi SL, Cocina Central

los comedores escolares vigente, si bien sirvió para asegurar la prestación del servicio integral (cocina, transporte, servicio y vigilancia) a una gran cantidad de centros escolares y ha proporcionado un buen nivel de protección frente a posibles casos de inseguridad alimentaria, sin embargo, en la práctica, ha sido causa de otras deficiencias relacionadas con la gestión del servicio, como las quejas por la mejorable calidad organoléptica y nutricional de los menús, el excesivo nivel de ruido en el espacio de comedor, la conflictividad derivada de las malas condiciones laborales de las personas contratadas o la nula autonomía de los centros educativos para poder elegir a la empresa prestataria del servicio.

3. Por su importancia en la génesis del sistema actual, mención aparte merece la progresiva desaparición de las cocinas escolares en los centros educativos. Desde la implantación del sistema de gestión directa, el Departamento de Educación ha permitido o incluso propiciado⁴⁰ la eliminación de las cocinas y, en consecuencia, la cada vez mayor dependencia de los centros del servicio de catering en caliente, un servicio que no puede realizarse a distancias superiores a los 50-60 km desde el punto de elaboración, ya que los sistemas de logística y transporte no garantizan conservar los alimentos a la temperatura mínima de 65 °C que se precisa para cumplir con las normas de seguridad alimentaria. Sin embargo, ninguno de los testimonios recabados en las sesiones de la comisión ha defendido que el catering en caliente proporcione una mayor seguridad alimentaria que el catering en frío o el cocinado de menús *in situ*⁴¹, por lo que cabe concluir que la desaparición de las cocinas escolares es un factor que, sin suponer una mejora del sistema en su conjunto, indirectamente también ha contribuido a la creación de las condiciones necesarias para la aparición de la práctica colusoria investigada⁴².

C. SOBRE LAS RESPONSABILIDADES POLÍTICAS

1. Siendo el objeto principal de la comisión de investigación determinar si las irregularidades en la gestión de los comedores escolares fueron atribuibles





Magui SL, Eurest Colectividades SL, Tamar Las Arenas SA, Gastronomía Cantábrica SL eta Gastronomía Vasca SA enpresek bakarrik eragin zituzten ala erantzukizun politikorik ere egon ote zen, ebatzi behar da ea halakorik egon zen, eta ea erantzukizun hori konplizitate-egintzetatik datorren ala klausula-agiriak eta kontratuak kontrolatzean izandako zabarkeriatatik; finean, egiteagatik edo ez egiteagatik. Erantzukidetasunaren aukera hori aipatu du dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak hainbat epaitan; izan ere, jaitsi egin zuen enpresek ordaindu beharreko isunen zenbatekoa, hain zuzen ere Administrazio autonomikoaren "erantzun, ikerketa, kontsulta edo prebentzio faltagatik".

2. Hain zuzen ere, 2002 eta 2015 arteko Hezkuntza Saileko arduradunen testigantzek berretsi dute Administrazioak ez zuela ezer egin gutxienez 10 urtean, harik eta 2012an Hezkuntza Sailak kontratazio-agirietan lehen aldaketak txertatu zituen arte. Hau da, ikerketa-batzorde honek egiaztatu du Eusko Jaurlaritza ez dela adi egon kontratazio publikoaren prozesuetan, enpresa eta/edo erakundeek jarritako salaketak eta errekurtsioak egon arren. Hortaz, *in vigilando* errua egotz dakioke, azken buruan eragin baitzuen zerbitzuaren enpresa esleipendunek pentsatzea "interés publikoaren arabera modu onargarri batean jokatzeko ari zirela", enpresa horietako ordezkariak batzorde honen aurrean emandako testigantzen bidez egiaztatu ahal izan denez. Batzorde honen iritziz, ikertutako ikasturte bakoitzean, jardun ez izanaren erantzukizun politikoa unean uneko Kudeaketa Ekonomikorako zuzendariari, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari eta Hezkuntzako sailburuari dagokie.
3. Gainera, Administrazioak ere ez zuen bizkortasunez jardun, zerbitzua ematen zuten enpresen arteko itunaren lehen susmoak agertu zirenean. Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapenak jarri behar izan ditu, eta ondoren

exclusivamente a las empresas Auzo Lagun S. Coop., Cocina Central Goñi SL, Cocina Central Magui SL, Eurest Colectividades SL, Tamar Las Arenas SA, Gastronomía Cantábrica SL y Gastronomía Vasca SA, o si también hubo responsabilidades políticas coadyuvantes, se ha de determinar si las hubo y si las mismas se derivaron de actos de complicidad o si se debieron a una negligencia en el control de la elaboración de pliegos y control de los contratos; en definitiva, por acción o por omisión. Esta última opción de corresponsabilidad ya ha sido apuntada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en sucesivas sentencias, quien rebajó la cuantía de las multas a abonar por las empresas precisamente por la falta de "reacción, indagación, consulta o prevención" de la Administración autonómica.

2. En efecto, los testimonios aportados por los responsables del Departamento de Educación entre los años 2002 y 2015 confirman la manifiesta inacción de la Administración durante al menos 10 años, hasta que en 2012 el Departamento de Educación introdujo los primeros cambios en los pliegos de contratación; es decir, esta comisión constata que el Gobierno Vasco no ha sido vigilante en los procesos de contratación pública, a pesar de las denuncias y recursos existentes por parte de otras empresas y/o entidades, con una culpa *in vigilando* que, en última instancia, propició que las empresas adjudicatarias del servicio pudieran considerar que "se actuaba de una manera asumible de cara al interés público", como así se pudo corroborar en los testimonios de los representantes de las citadas empresas en esta comisión. Esta comisión considera que, en cada uno de los cursos investigados, la responsabilidad política de no haber actuado corresponde a las personas que en cada momento ocupaban la Dirección de Gestión Económica, la Viceconsejería de Administración y Servicios y la Consejería del Departamento.
3. Además, la Administración tampoco reaccionó con celeridad ante las primeras sospechas de concertación entre las empresas prestatarias del servicio. Ha tenido que haber sanciones por parte de la





justizia-auzitegiek zehapenok berretsi, Administrazioak etorkizunera begira jardutea planteatzeko. Edonola ere, zehapen horietatik haratago, Eusko Jaurlaritzak ez du inolako neurririk hartu enpresa horiei dagokienez, frogatutako ituntze horien ondorioz diru-kutxa publikoan izandako ondare-galera egiaztatze xedez. Enpresa horiek ez dute ondorio administratiborik jasan, Lehiaren Euskal Agintaritzaren zehapenez haratago, nahiz eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren hitzetan, "Administrazioaren ekintzaren helburuetako bat lehia askea zaintzea" den. Batzorde honek uste du ondarearen galera hori ebaluatu edo berreskuratzeko 2017tik ezer egin ez izanaren erantzukizun politikoa Kudeaketa Ekonomikorako zuzendari Amaia Jauregiberri Goenagari, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuorde Olatz Garamendi Landari eta Hezkuntzako sailburu Cristina Uriarte Toledori dagokiela, haiek baitzeuden kargu horietan EAEJANren behin betiko epaiak jakitera eman zirenean.

4. Edonola ere, ikerketa-batzorde honetan ezin izan da egiaztatu berriazko elkarlan edo elkar-hartzerik egon denik zehatutako enpresen eta Eusko Jaurlaritzako arduradun tekniko edo politikoen artean, ikertutako denboraldi guztian.

D. LEGEZ KANPOKO ITUNTZEAREN ONDORIOEI BURUZ

1. Enpresen arteko legez kanpoko ituntzearen ondorio eta arrazoi nagusia merkatuko prezioak beren interesen alde aldatzea izan zen, beren etekinak legez kanpo areagotzeko. Ondorio horretara iritsi zen Lehiaren Euskal Agintaritzan¹¹, honako hau adierazi baitzuen 2002 eta 2014 artean egondako esleipen-sistemaren inguruan: "lehia eraginkorreko egoerak eragingo zuen prezioaren gainetik mantentzeko dituzten prezioak, Hezkuntza Sailaren mendeko kudeaketa zuzeneko jantokiak dauzkaten ikastetxe publikoen jatetxe-zerbitzu kolektiboen merkatuan".

Autoridad Vasca de la Competencia, ratificadas después por los tribunales de justicia, para que la Administración se plantease actuar de cara al futuro. No obstante, más allá de dichas sanciones, el Gobierno Vasco no ha adoptado ninguna medida con respecto a estas empresas, de cara a acreditar el quebranto patrimonial producido en las arcas públicas por la acción concertada probada. No ha habido consecuencias administrativas para estas empresas más allá de las sanciones de la Autoridad Vasca de la Competencia, a pesar de que, en palabras del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, "una de las finalidades de la acción administrativa es la de preservar la libre competencia". Esta comisión considera que la responsabilidad política de no haber actuado desde 2017 para evaluar o subsanar el citado quebranto patrimonial corresponde a la directora de Gestión Económica Amaia Jauregiberri Goenaga, a la viceconsejera de Administración y Servicios Olatz Garamendi Landa y a la consejera Cristina Uriarte Toledo, que ocupaban esos cargos en el momento de conocerse las sentencias definitivas del TSJPV.

4. En cualquier caso, no se ha podido acreditar en el seno de esta comisión de investigación que se haya producido colaboración o connivencia expresa entre las empresas sancionadas y los responsables técnicos o políticos del Gobierno Vasco, a lo largo de todo el periodo investigado.

D. SOBRE LAS CONSECUENCIAS DE LA CONCERTACIÓN ILEGAL

1. La principal consecuencia y motivación de la concertación ilegal entre empresas fue la de alterar los precios del mercado en su propio interés para incrementar sus beneficios de forma ilícita. A esta conclusión llegó la Autoridad Vasca de la Competencia⁴³ al afirmar que el sistema de adjudicación existente entre 2002 y 2014 "ha tenido un efecto de mantenimiento de los precios por encima del precio que hubiera resultado de una situación de competencia efectiva en el mercado de los servicios de restauración colectiva a centros públicos de enseñanza con comedores de gestión directa dependientes del Departamento de





2. Hipotesi hori berrestearren, batzorde honek xehetasunez aztertu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako datuak eta Lehiaren Euskal Agintaritzak bere garaian egindako kalkuluak. Azterketa horri esker, batzorde honek zenbatetsi ahal izan du eskola-jantokiaren zuzeneko kudeaketa-sisteman zerbitzuaren zenbateko osoaren % 8,4 eta % 10,6 bitarteko gainkostua egon zela 2002tik 2015era arteko aldirian; 70,8 eta 82,2 milioi euro inguru, alegia.
3. Izan ere, Hezkuntza Sailak zuzeneko kudeaketa-sistemari dagokionez emandako parametro nagusiak abiapuntu hartuta¹², batzorde honek kalkulatu du 2006-2007 eta 2014-2015 ikasturteen artean eragindako gainkostua 73,4 milioi euro inguru izan zela, aztertutako 12 urteko aldiko aurrekontu-partidak aintzat hartuta; hala bada, horrek 82,2 milioi euroko zenbatekoa ematen du guztira.
4. Egitate hori bat dator Lehiaren Euskal Agintaritzak egin zuen kalkuluarekin¹³, bere garaian egiaztatu baitzuen 7 milioi euro aurreztu zirela 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan egindako esleipenen artean; batez ere, LEAk berak lehia bultzatzeko asmoz baldintza-agirietan sustatutako aldaketan ondorioz. Hori horrela, Lehiaren Euskal Agintaritzak 2015-2016 ikasturtean egiaztatutako aurrezpenean oinarrituta, emaitza horien estrapolazioa egin da¹⁴, zeinak, emaitza gisa, 70,8 milioi euroko gainkostu estimatua eman baitu aztertutako aldi osoan egindako lizitazioetan. Izan ere, legez kanpoko ituntze-praktika horren ondorioz¹⁵, hamabi ikasturte horietan enpresek eskaini zituzten prezioak lizitazio-prozesuaren gehienekoak baino % 0,30 eta % 3 bitartean apalagoak baino ez ziren izan.

E. ADMINISTRAZIOARI ETA FAMILIEI ERAGINDAKO KALTE EKONOMIKOARI BURUZ

Educación¹⁶.

2. Con el fin de confirmar esta hipótesis, esta comisión ha realizado un detallado análisis de los datos facilitados por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y de los cálculos efectuados en su día por la Autoridad Vasca de la Competencia. Dicho estudio ha permitido a esta comisión estimar que entre 2002 y 2015 se produjo un sobrecoste en el sistema de gestión directa de comedores escolares de entre el 8,4 % y el 10,6 % del montante total del servicio, lo que supondría entre 70,8 y 82,2 millones de euros.
3. En efecto, tomando como base de partida los parámetros principales del sistema de gestión directa facilitados por el Departamento de Educación⁴⁴, esta comisión ha calculado que entre los cursos 2006-2007 y 2014-2015 se produjo un sobrecoste de unos 73,4 millones de euros, que, extrapolado a las partidas presupuestarias del periodo de 12 años objeto de investigación, supone una cantidad total de 82,2 millones de euros.
4. Esta constatación es coherente con el cálculo que realizó la Autoridad Vasca de la Competencia⁴⁵, que en su día acreditó un ahorro de 7 millones de euros entre las adjudicaciones realizadas en el curso 2014-2015 y en el 2015-2016, fundamentalmente debido a la modificación de los pliegos impulsada por la propia AVC para favorecer la competencia. En este sentido, sobre la base del ahorro verificado por la Autoridad Vasca de la Competencia en el curso 2015-2016, se ha efectuado una extrapolación de esos resultados⁴⁶, que ha dado como resultado un sobrecoste estimado de 70,8 millones de euros en las licitaciones realizadas durante todo el periodo investigado, motivado por el hecho de que, como consecuencia de la mencionada concertación ilícita⁴⁷, a lo largo de esos doce cursos escolares las empresas ofertaron precios apenas entre un 0,30 % y un 3 % por debajo de los máximos del proceso de licitación.

E. SOBRE EL QUEBRANTO ECONÓMICO A ADMINISTRACIÓN Y FAMILIAS





1. Bestalde, batzorde honek ebatzi behar zuen enpresa esleipendunek merkatua beren artean bidegabeki banatzeak kalterik egin zien jantoki-zerbitzua erabiltzen zuten familiei eta/edo Euskadiko herritarrei, oro har. Aurreko apartatuan zenbatetsitako gainkostua ikusita, egiaztatuz jotzen da ondarezko kaltea egin zaiela diru-kutxa publikoei, herritarrei eta zerbitzua erabiltzen zuten familiei, egiaztatu baita menuak eskaintzeko prezioak garestiagoak zirela itunze hori gertatu ezean izango ziratekeenak baino.
 2. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, batzorde honek ebaluatu du ikertutako aldi osoan 28,7 eta 33,7 milioi euro artekoa izan litekeela jasandako ondarezko kaltea, zer hartzen den kontuan, Hezkuntza Sailaren aurrekontu-partidetan oinarritutako zenbatespena¹⁶ edota Lehiaren Euskal Agintaritzak kalkulaturako aurreziaren estrapolazioa¹⁷. Nolanahi ere, ez dago egiaztatuta Hezkuntza Sailak estimazio alternatiborik egin duenik, ez eta prozedurarik abiarazi duenik ere, zerbitzuaren esleipendun diren enpresei zenbateko horiek edo beste batzuk erreklamatzeko.
 3. Familiei dagokienez, batzorde honen iritzi, jantoki-kuoten bitartez ordaindutako gainkostua 42,1 eta 48,5 milioi euro bitarte izan zen ikertutako aldi osoan, zer hartzen den kontuan, Hezkuntza Sailaren aurrekontu-partidetan oinarritutako zenbatespena¹⁸ edota Lehiaren Euskal Agintaritzak kalkulaturako aurreziaren estrapolazioa¹⁹.
 4. Familiek beren gain hartutako gainkostuari dagokionez, ikerketa-batzorde honetan aditutako lekukotasun batzuek adierazi dute familiek ordaintzen duten prezioa ez dela zerbitzuaren kostuaren araberakoa, eta familiek kostuaren % 65 ordaintzen zutela, eta gainerako % 35a Administrazioak ordaintzen zuela. Nolanahi ere, baieztapen horiek ez dute inolako lege-euskarririk; izan ere, 2000ko martxoaren 22ko Aginduak xedatutakoaren arabera, "gizarteari eskaini nahi zaion jantoki-zerbitzuaren ereduak iraungo badu, autofinantzatu egin beharko da nahitaez. Horregatik, [...] Hezkuntza,
1. Por otra parte, esta comisión debía dirimir si el reparto ilícito del mercado por parte de las empresas adjudicatarias supuso una merma a las familias usuarias del servicio de comedores y/o a la ciudadanía vasca en general. A la vista del sobrecoste estimado en el apartado anterior, sí se considera acreditado un perjuicio patrimonial a las arcas públicas, a la ciudadanía y a las familias usuarias, al constatarse que los precios por los que se ofrecían los menús eran más caros de lo que hubieran sido de no haberse producido esta concertación.
 2. En el caso del Gobierno Vasco, esta comisión ha evaluado que el perjuicio patrimonial soportado podría ser de entre 28,7 y 33,7 millones de euros para el conjunto del periodo investigado, según se considere la estimación basada en las partidas presupuestarias del Departamento de Educación⁴⁸ o la extrapolación del ahorro calculado por la Autoridad Vasca de la Competencia⁴⁹, sin que exista constancia de que el Departamento de Educación haya efectuado una estimación alternativa ni haya iniciado procedimiento alguno para la reclamación de estas u otras cantidades a las empresas adjudicatarias del servicio.
 3. En lo que respecta a las familias, esta comisión estima que el sobrecoste abonado a través de las cuotas de comedor habría sido de entre 42,1 y 48,5 millones de euros para el conjunto del periodo investigado, según se considere la estimación basada en las partidas presupuestarias del Departamento de Educación⁵⁰ o la extrapolación del ahorro calculado por la Autoridad Vasca de la Competencia⁵¹.
 4. En relación con el sobrecoste asumido por las familias, algunos testimonios escuchados en esta comisión de investigación han manifestado que el precio que abonan las familias es independiente del coste del servicio, y también que las familias abonaban el 65 % del coste, y la Administración el 35 % restante. Sin embargo, dichas afirmaciones no tienen sustento legal alguno, ya que la Orden de 22 de marzo de 2000 establecía que "para que el modelo de servicio de comedor escolar que se ofrece a la sociedad sea sostenible en el tiempo, es necesario que sea





Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartzen du jantokiaren erabiltzaileek ordaindu beharreko kuotak ezartzeko eskumena, eta kuotak benetako kostura egokituz joango da apurka-apurka".

5. Hain zuzen, batzorde honek egiaztatu du²⁰ 2006-2007 eta 2012-2013 ikasturteen artean ohiko eta noizbehinkako jankideentzako menuen kuotak % 43 eta % 51 bitartean igo zirela; hau da, enpresek fakturatutako kostua (% 54) baino gutxiago, baina batzorde honek, KPlaren igoera eta zerbitzuari lotutako langile-ratioak aintzat hartuta, zenbatetsitako batez besteko kostua baino gehiago (% 38). Hots, gutxienez 2006tik 2012ra bitarteko aldiaren, familiek, menuen kostuaren batez besteko igoera zenbatetsia ez ezik, enpresen arteko legez kanpoko ituntzeak eragindako gainkostuaren zati bat ere jasan zuten.
6. Gainera, batzorde honek egiaztatu du²¹ 2012-2013 ikasturteaz geroztik izandako kuoten egonkortzeak ez duela gutxitu familiek finantzatutako sistemaren ehunekoa, baizik eta hori ordutik % 14 ere handitu dela, 2012-2013an % 61,29 izatetik 2017-2018an % 75,92 izatera igaro baita.

GOMENDIOAK

Batzorde honek egiaztatu du eskola-jantokiaren zuzeneko kudeaketarako oraingo sistemaren diseinuak zenbait gabezia eta ahultasun dituela, eta horiek zuzentzea komeni dela, etorkizunean enpresen arteko ituntzeak eta merkatua banatzeko praktikak eragozteko, bai eta familiei eskaintzen zaien zerbitzuaren konfiantza, kalitatea eta prezioa hobetzeko ere.

Kontratazioari dagokionez, entzundako lekukotasunetatik ondoriozta dezakegu enpresen homologazio-baldintzak zein zerbitzua kontratatzeko prozedurak oztopo izan direla zenbait enpresa sartzeko, beren neurri edo esperientziatik ez baitute homologatuak izateko aukerarik izan, eta horrek, zalantzarik gabe, ekarri du enpresa lizitatuak gutxiago izatea eta, ondorioz, kalitate handiagoa prezio txikiagoan jasotzeko aukera ere murriztea.

autofinanciable. Por ello, [...] el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se reserva la competencia para establecer las cuotas a abonar por los usuarios del comedor, adaptándolas paulatinamente a los costos reales de esta prestación".

5. En efecto, esta comisión ha comprobado⁵² que entre los cursos 2006-2007 y 2012-2013 las cuotas de los menús para comensales habituales y eventuales subieron entre un 43 % y un 51 %, algo menos que el coste del menú facturado por las empresas (54 %) pero más que el coste medio estimado por esta comisión sobre la base de la subida del IPC y de los ratios de personal asociados al servicio (38 %). Es decir, que, al menos entre 2006 y 2012, las familias soportaron no solo la subida media estimada del coste de los menús, sino también una parte del sobrecoste ocasionado por la concertación ilegal entre las empresas.
6. Además, esta comisión ha verificado⁵³ que la estabilización de las cuotas producida a partir del curso 2012-2013 no solo no ha reducido el porcentaje del sistema financiado por las familias, sino que este se ha incrementado en un 14 % desde entonces, pasando del 61,29 % en 2012-2013 al 75,92 % en 2017-2018.

RECOMENDACIONES

Esta comisión constata que el diseño del actual sistema de gestión directa de los comedores escolares presenta una serie de deficiencias y debilidades que conviene subsanar, a fin de evitar futuros casos de concertación y reparto del mercado entre empresas, así como para mejorar la confianza, la calidad y el precio del servicio que se ofrece a las familias.

En lo que respecta a la contratación, de los testimonios escuchados podemos concluir que tanto los requisitos de homologación de las empresas como los procedimientos de contratación del servicio han supuesto una barrera de entrada a empresas que, por su tamaño o experiencia, no han podido optar a ser homologadas, lo que indudablemente ha hecho que se reduzca el número de empresas licitantes y, por ende, la posibilidad de una mayor calidad a un menor





precio.

Horri guztiari jantoki-zerbitzuak eskola-eremuan duen eginkizun garrantzitsua erantsi behar zaio; hain zuzen ere, bi funtzio betetzen ditu, biak batera: hezte eta zerbitzu publiko bat ematea. Eta ez ditugu ahaztu behar Eusko Jaurlaritzak kontratazio publiko arduratsuekin lotuta dagoen arloan Nazio Batuen garapen jasagarriko helburuei dagokienez bere gain hartu dituen konpromisoak.

Aurreko guztiagatik, uste dugu ikerketa-batzorde honek gomendio batzuk helarazi behar dizkiola Eusko Jaurlaritzari, bi helbururekin: sistemaren gardentasuna hobetzea eta enpresen arteko lehia areagotzea, zerbitzuaren kalitatea murriztu gabe.

1. Zerbitzuaren kudeaketa deszentralizatuari buruz

2000ko martxoaren 22ko Aginduaugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez, "kudeaketa zuzena da jantoki-zerbitzua emateko aurrekusi den behin betiko formula. Beraz, inork ezingo dio uko egin".

Kudeaketa zuzeneko sistemarekin pozik ez dauden ikastetxeetarako kudeaketa-sistema alternatiborik ez dagoenez, praktikan, enpresa esleipendunek ziurtasuna izaten dute zerbitzua ematen jarraituko dutela, betiere kontratazio-agirietako eskakizunak errespetatzen badituzte, bezeroaren (hots, ikastetxearen) benetako gogobetetze-maila edozein dela ere. Horrek arrisku nabarmen bat eragin dezake; hain zuzen ere, enpresa esleipendunek grina txikiagoa izatea zerbitzuan berrikuntza-prozesuak txertatzeko eta kalitatearen etengabeko hobekuntza bultzatzeko. Horrenbestez, beharrezkoa da kudeaketa deszentralizatzea eta ikastetxeei legezko bideak ematea, jantokia kudeatzeko beste modu batzuk aukeratu ahal izan ditzaten.

Bestalde, Hezkuntza Sailak konpromisoa adierazi berri du hezkuntza-zentroetako jantokien autokudeaketarako programa pilotuak garatzeko. Eredu horretan, guraso-elkarteek hartzen dute beren gain jantokiaren kudeaketa integrala: zuzenean kudeatzen dute lehengaien erosketatik (tokiko ekoizleei eta merkatariei txikiei, ahal den neurrian), eta kanpoko enpresa batekin kontratatzen dute jantokiko begiraleen zerbitzua.

A todo ello hay que añadir el relevante papel que el servicio de comedor juega en el ámbito escolar, y que ha de caracterizarse por aunar una doble función: la educativa y la de prestación de un servicio público. Sin olvidar también los compromisos que el Gobierno Vasco ha asumido con respecto a los objetivos de desarrollo sostenible de las Naciones Unidas, en lo que tiene que ver con la contratación pública responsable.

Por todo lo anterior, consideramos que esta comisión de investigación debe trasladar al Gobierno Vasco una serie de recomendaciones, con el doble objetivo de mejorar la transparencia del sistema y de aumentar la competencia entre empresas, sin mermar la calidad del servicio.

1. Sobre la gestión descentralizada del servicio

La Orden de 22 de marzo de 2000 establece en su disposición adicional cuarta que "la gestión directa es la fórmula definitiva prevista para la prestación del servicio de comedor. Por tanto, no se podrá renunciar a ella".

La inexistencia de un sistema de gestión alternativo para aquellos centros educativos que no están satisfechos con el sistema de gestión directa provoca que, en la práctica, las empresas adjudicatarias tengan la certeza de que van a seguir prestando el servicio siempre que respeten las exigencias de los pliegos de contratación, con independencia del grado de satisfacción real del cliente, esto es, del centro educativo. Esto puede conllevar un riesgo evidente de que las empresas adjudicatarias tengan una menor predisposición a abordar procesos de innovación y de mejora continua en la calidad del servicio. De ahí la necesidad de descentralizar la gestión y facilitar a los centros educativos cauces legales para optar por otros modos alternativos de gestión del comedor.

Por otra parte, el Departamento de Educación, en fechas recientes, ha mostrado un compromiso con el desarrollo de programas piloto de autogestión de comedores en centros educativos. Se trata de un modelo en el que las propias asociaciones de madres y padres asumen la gestión integral del comedor, gestionando directamente la compra de materia prima —a productores locales y pequeños comerciantes, en la





Gomendagarria litzateke programa hori, ahal den neurrian, eskatzen duten ikastetxe guztietara hedatzea, aztertu ondoren zenbateraino bete diren parte hartu duen ikastetxe bakoitzaren proiektuaren helburuak. Interesgarriak izan daitezke kudeaketa autonomoaren bestelako sistema batzuk ere, eta aztertu egin behar dira, ikastetxe bakoitzaren premien eta gaitasunen arabera.

2. Zerbitzuaren prezioari buruz

Batzorde honen ustez, Hezkuntza Sailak ematen duen eskola-jantokiaren zerbitzua publikoa izaki, haren prezioak irizpide objektibo eta gardenei jarraikiz finkatu behar dira, gobernamentu publiko moderno baten printzipioekin bat etorritz.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu gaur egun zerbitzu horren prezioa finkatzen duen esparru juridikoa 2000ko martxoaren 22ko Agindua ezartzen duena dela, zeinaren hitzurrean adierazten baita ezen, sistemaren autofinantzaketa lortzearen, "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartzen duela jantokiaren erabiltzaileek ordaindu beharreko kuota ezartzeko eskumena, eta kuota benetako kostura egokituz joango dela apurka-apurka". Kuota horiek 22. artikuluan ezarritakoaren arabera finkatzen dira, eta bertan honako hau baino ez da zehazten: "jantokiak jantokideen kuotekin finantzatu dira, eta, hala badagokio, bestelako erakunde pribatu edo publikoren batek jantokirako emandako laguntzekin ere bai", eta "kuotek eta laguntzek ez badituzte jantoki-zerbitzuaren benetako kostuak estaltzen, Hezkuntza Sailak behar duten dotazioa esleituko die ikastetxeei, hala baitago jasota Euskal Eskola Publikoaren Legearen 54.2 artikuluan".

Praktikan, batzorde honek egiaztatu du ez dagoela irizpide publiko eta ezagunik sistemaren finantzaketa ziurtatzeko, eta Saileko arduradun edo arduradun ohi bakar bat ere ez zen gauza izan agerraldian alderdi hori argitzeko, eta Lehiaren Euskal Agintaritzak berak ziurtatzen jo zuen bere irizpenean finantzaketaren banaketan % 65 familientzat zela eta % 35 Hezkuntza Sailarentzat, ratio horrek legezko oinarririk ez badu ere.

medida de lo posible– y contratando con una empresa externa el servicio de monitores y monitoras de comedor. Sería recomendable la extensión de este programa, siempre que fuera posible, a todos los centros que lo solicitasen, tras la oportuna evaluación que analice el grado de cumplimiento de los objetivos del proyecto de cada uno de los centros participantes. Otros sistemas de gestión autónoma pueden ser igualmente interesantes y se deben explorar en función de las necesidades y capacidades de cada centro.

2. Sobre el precio del servicio

Esta comisión considera que el servicio de comedores escolares prestado por el Departamento de Educación es un servicio público cuyos precios se deben fijar de acuerdo con criterios objetivos y transparentes, en concordancia con los principios de una gobernanza pública moderna.

A este respecto cabe indicar que en la actualidad el marco jurídico que fija el precio de este servicio es el que establece la Orden de 22 de marzo de 2000, en cuyo preámbulo se indica que, a fin de lograr la autofinanciación del sistema, "el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se reserva la competencia para establecer las cuotas a abonar por los usuarios del comedor, adaptándolas paulatinamente a los costos reales de esta prestación". Dichas cuotas se fijan de acuerdo con lo recogido en el artículo 22, donde apenas se concreta que "los comedores se financiarán con las cuotas de los comensales y, en su caso, con las aportaciones de otros entes públicos o privados destinadas a tal fin", y "en el supuesto de que dichas cuotas y aportaciones no cubran el coste real del servicio de comedor, el Departamento asignará a los centros las dotaciones necesarias, de conformidad con lo establecido en el artículo 54.2 de la Ley de Escuela Pública Vasca".

En la práctica, esta comisión ha verificado que no existe un criterio público y conocido para asegurar la financiación del sistema, hasta el punto de que ninguna de las personas responsables o exresponsables del Departamento fue capaz de aclarar tal cuestión en su comparecencia, e incluso la propia Autoridad Vasca de la Competencia dio por supuesto en su dictamen que el reparto de la financiación era del 65 % para las familias y del 35 % para el Departamento de Educación, sin que dicho ratio tenga sustento legal alguno.





Badirudi Administrazioak ez duela irizpiderik kuota horiek eguneratzeko, kontuan hartuta 2003-2004 eta 2012-2013 ikasturteen artean kuota horiek menuaren batez besteko prezioaren igoerarekin batera igo zirela²², baina ikasturte horretatik aurrera, berriz, kuotak bere horretan mantendu dira, menuaren kostu fakturatua % 16,5 gutxitu arren.

Jantoki-zerbitzuaren prezio publikoak osatzeko orduan egon den opakutasun hori familien ekonomiaren kalterako izan da, ikusi baitute sistema-finantzaketaren ehunekoa 2006-2007 ikasturtean % 60,7 izatetik 2017-2018 ikasturtean % 75,9 izatera igaro dela²³. Kalte hori are handiagoa izan da baliabide ekonomiko gutxien duten familientzat; izan ere, 2014-2015 ikasturteak, jantoki-zerbitzuaren urteko batez besteko kostua jantokiko bekaren batez besteko zenbatekoa baino handiagoa da jada²⁴.

3. Klausula-agiriei buruz

Batzorde honen iritziz, Administrazioa adi egon daiteke, eta hala egon behar du, lehiaren arloko legedia urratzen duten enpresa-jokabideen aurrean. Merkatuan sartu berri dira lehia askearen eta gardentasunaren printzipioak. Printzipiook lehentasuna dute gure ordenamendu juridikoan, eta Administrazioak bere gain hartu behar ditu, ondorio guztiekin. Hezkuntza Sailak aholkua eskatu dio Lehiaren Euskal Agintaritzari, eskola-jantokiaren lizitazioaren hurrengo lehiaketako baldintza-agiriak idazteko. Ildo horretatik, guk eskatzen dugu elkarlan hori iraunkor bihurtzea, eta Lehiaren Euskal Agintaritzak, zeinaren xedeetako bat baita lehiaren balioak sustatzea, ireki ditzala komunikazio-kanal egonkorak Hezkuntza Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako beste sailekin, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legean jasotako xedapenak gauzatzeko xedez²⁵.

Alde horretatik, bereziki garrantzitsua da kontratua prestatzeko fasea, bertan geratzen baitira zehaztuta kontratuaren xedea eta kontratazio-baldintzak; fase horrek, gainera, eragin erabakigarria du geroko faseetan eta azken

Tampoco parece existir un criterio explícito para la actualización de dichas cuotas por parte de la Administración, habida cuenta de que entre los cursos 2003-2004 y 2012-2013 las mismas se incrementaron de forma sostenida coincidiendo con la subida del precio medio del menú⁵⁴, mientras que a partir de ese curso las cuotas se han mantenido estables a pesar de que el coste facturado del menú se ha rebajado un 16,5 %.

Esta opacidad en la conformación de los precios públicos del servicio de comedores ha jugado en detrimento de la economía de las familias, que han visto cómo su porcentaje en la financiación del sistema subía de un 60,7 % en el curso 2006-2007 a un 75,9 % en el curso 2017-2018⁵⁵. Este perjuicio todavía ha sido mayor para las familias con menos recursos económicos, quienes han visto cómo, desde el curso 2014-2015, el coste medio anual del servicio de comedor supera ya el importe medio de la beca de comedor⁵⁶.

3. Sobre la elaboración de los pliegos

Esta comisión considera que la Administración puede y debe estar alerta ante comportamientos empresariales que vulneren la legalidad en materia de competencia. Nos enfrentamos a la reciente incorporación de los principios de libre competencia y transparencia en el mercado, que tienen una preponderancia en nuestro ordenamiento jurídico y que han de ser asumidos por la Administración con todas las consecuencias. Del mismo modo que el Departamento de Educación ha pedido el asesoramiento de la Autoridad Vasca de la Competencia para redactar los pliegos de condiciones del próximo concurso de licitación de comedores escolares, instamos a que esa colaboración se torne permanente, y a que la Autoridad Vasca de la Competencia, uno de cuyos fines es la promoción de los valores de la competencia, abra canales estables de comunicación y cooperación con el Departamento de Educación y con otros departamentos del Gobierno Vasco, al objeto de hacer realidad los preceptos que vienen reflejados en la Ley 1/2012, norma de su creación⁵⁷.

En este sentido, la fase de preparación del contrato es especialmente importante, ya que en ella queda definido el objeto del contrato y las condiciones de contratación, y además ejerce una influencia decisiva en las fases posteriores y en el





emaitzan. Lehiaren Euskal Agintaritzaren beraren esanetan, "plangintza eta prestakuntza ondo egitea ezinbestekoa da, sektore publikoaren lizitazioetan zaindu beharreko printzipioak betetzeko. Horregatik, lizitazio baten deia egin baino lehen, elementu hauek balioetsi beharko lirateke, besteak beste: beharrak, merkatu-egoera, iritziak, aurrekontua eta kostu-etekina".

Hori dela eta, lehenik eta behin, ezinbestekoa da, eskola-jantokiaren zerbitzua kontratatuz bukatzen den prozesuaren beharra eta egokitasuna justifikatzean, esplizituki adieraztea eskola-jantokiaren zerbitzuak bi eginkizun dituela bereizgarri; hots, hezteko eta zerbitzu publikoa ematea.

Horrez gain, esplizituki aitortu behar da zerbitzu hori lehenetsitako sektoreetako batean kokatzen dela (elikadura eta jatetxe-zerbitzuak), eta horiei dagokienez Europako Batzordeak azpimarratu duela irizpide komunak ezarri behar direla, kontratazio publiko ekologiko, etiko eta sozialari aplikatu ahal izateko. Horrenbestez, beharrezko irizpideak zehaztu behar dira, kontratuak lehiaren, tratu-berdintasunaren eta ez diskriminatzearen printzipioak bete dituzan, eta balio dezan bai lehia eraginkorra bultzatzeko, bai ingurumena babesteko eta politika sozialak sustatzeko, ordenamendu juridikoak esleitzen dion eginkizun ekonomiko eta soziala bete dezan zerbitzuak. Sektore Publikoko Kontratuen Legeak²⁶ berak hau xedatzen du 1.3 artikuluan:

"Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da".

Zehazkiago, kontratuaren xedea ezartzean, kontratatu beharrekoa zer den argi eta garbi adieraztea gomendatzen dugu. Hala, kontratuak, adibidez, deskribatzen badira esanez "eskola-jantokiaren zerbitzua ematea, bidezko merkataritzako produktuak hornituz eta ingurumena errespetatuz", eta dagokion klausula-agirian

resultado final. En palabras de la propia Autoridad Vasca de la Competencia, "una buena planificación y preparación resulta indispensable para cumplir con los principios que hay que salvaguardar en las licitaciones del sector público. Es por ello que antes de convocar una licitación deberían valorarse elementos como necesidades, situación de mercado, opiniones, presupuesto y coste-beneficio".

Por ello, en primer lugar, resulta imprescindible que, en la justificación de la necesidad e idoneidad del proceso que culmina con la contratación del servicio de comedores escolares, quede patente de forma explícita la doble función educativa y de prestación de servicio público que caracteriza al servicio de comedores escolares.

Además, es preciso reconocer explícitamente que este servicio se encuadra dentro de uno de los sectores prioritarios (alimentación y servicios de restauración) sobre los que la Comisión Europea ha subrayado la necesidad de definir criterios comunes que se puedan aplicar a una contratación pública ecológica, ética y social. Por lo tanto, se deben concretar los criterios necesarios para que, ajustándose a los principios de concurrencia, igualdad de trato y no discriminación, el contrato sirva no solo para favorecer una competencia efectiva, sino también para la protección del medio ambiente y la promoción de políticas sociales, de modo que el servicio cumpla con la función económico-social asignada por el ordenamiento jurídico. La propia Ley de Contratos del Sector Público⁵⁸ lo especifica en su artículo 1.3:

"En toda contratación pública se incorporarán de manera transversal y preceptiva criterios sociales y medioambientales, siempre que guarden relación con el objeto del contrato, en la convicción de que su inclusión proporciona una mejor relación calidad-precio en la prestación contractual, así como una mayor y mejor eficiencia en la utilización de los fondos públicos. Igualmente, se facilitará el acceso a la contratación pública de las pequeñas y medianas empresas, así como de las empresas de economía social".

Más concretamente, a la hora de determinar el objeto del contrato, se recomienda indicar claramente qué es lo que se va a contratar. Así, por ejemplo, una descripción del contrato del tipo "la prestación del servicio de comedor escolar a través del suministro de productos procedentes de comercio justo y respetuosos con el medio





baldintza teknikoak zehazten badira, erraztasunak ematen zaizkie enpresei, interesatuta dauden erabaki dezaten; behar den lehia-maila ezartzen dute; eta baldintza neurgarriak adierazten dituzte, zeinak, gerora, lagungarriak izango baitira eskaintzak eta betetze-irizpide minimoak balioesteko.

Bestalde, lege berriaren 115. artikulua ezartzen du kontratazio-organoak aurretiko kontsultak egin ahal izango dizkiela merkatu-operadoreei, lizitazioa zuzen prestatzeko; nolana ere, Administrazioak arreta bereziarekin jardun beharko du, legeak berak ezartzen dituen kautelak zorrozki betetzen direla bermatzeko, kontsultaturiko eragileek ez dezaten kontratazio-organoaren gainean gehiegizko eragina izan. Hori horrela, operadore ekonomiko aktiboek kontsulta egiteko aukera salbuespenzkoa izan beharko da, eta, ahal izanez gero, beste eragile batzuei egin beharko zaie kontsulta. Berau amaitutakoan, egindako jarduketa guztiak txosten batean jaso beharko dira, zeina espedienteari erantsiko baitzaio, eta ziurtatu beharko da oinarritzko alderdi guztiak eta azken txostena kontratatzailearen profilean argitaratu direla.

Azkenik, lizitazio-prozeduraren modalitateak aukeratzeak ere badu bere egina, lizitazioetan lehia handiagoa egoteari begira. LEA erakundearen iritzian²⁷, lehia hori ondoen ziurtatzen duena prozedura irekia da eta, halaber, eskaintzaileen jokabidea analizatu ahal izateko aukera ematen duten enkante elektronikoak erabiltzea. Hortaz, baldin eta, kontratuaren xedearen beharrak aintzat hartuta, beste prozedura bat aukeratu bada, aldaketa hori justifikatu egin beharko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratu, ez daitezen arriskuan jar gardentasun-, publizitate- eta proportzionaltasun-printzipioak, lehiarekiko errespetua, eta lizitazioaren tratu-berdintasuna eta diskriminazio eza.

4. Aurretiazko lizitazio-iragarkiei buruz

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak²⁸ 28.4 artikuluan ezartzen duenaren arabera, "sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren jardura programatzeko dute eta aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan garatzeko, eta kontratazioari buruzko beren plana aurrez jakinaraziko dute, aurretiazko informazioaren iragarki baten bitartez; iragarki horretan, zeina 134. artikuluan aurreikusita baitago, gutxienez ere erregulazio harmonizatuko kontratuak agertuko

ambiente", junto con la definición de las condiciones técnicas en el correspondiente pliego, facilitan a las empresas que puedan decidir si están interesadas, establecen el nivel de competencia necesario, y exponen requisitos mensurables que posteriormente servirán para evaluar ofertas y criterios mínimos de cumplimiento.

Por otra parte, la nueva ley establece en su artículo 115 la posibilidad de que el órgano de contratación realice consultas preliminares con operadores de mercado para preparar correctamente la licitación, pero la Administración habrá de ser especialmente diligente para garantizar el cumplimiento estricto de las cautelas que la propia ley establece para que dicho órgano de contratación no se vea influenciado en exceso por los operadores consultados. Así pues, la consulta a operadores económicos activos deberá ser excepcional y realizarse preferentemente a otros agentes. Al finalizar la consulta, deberán recogerse todas las actuaciones realizadas en un informe, que se incorporará al expediente, y deberá asegurarse de que todos los aspectos esenciales, así como el informe final, han sido publicados en el perfil del contratante.

Por último, la selección de la modalidad del procedimiento de licitación tampoco es inocua a efectos de procurar una mayor concurrencia a las licitaciones. En opinión de la AVC⁵⁹, el procedimiento que mejor la asegura es el abierto y la utilización de subastas electrónicas que permitan analizar el comportamiento de los oferentes. Por ello, si de acuerdo con las necesidades del objeto del contrato el procedimiento seleccionado es otro, será necesario justificar dicho cambio y publicarlo en el perfil del contratante, de forma que no puedan ponerse en riesgo los principios de transparencia, publicidad y proporcionalidad y el respeto a la competencia y la igualdad de trato y no discriminación a los licitadores.

4. Sobre los anuncios previos de licitación

Conforme a lo establecido en el artículo 28.4 de la Ley de Contratos del Sector Público⁶⁰, "las entidades del sector público programarán la actividad de contratación pública, que desarrollarán en un ejercicio presupuestario o períodos plurianuales y darán a conocer su plan de contratación anticipadamente mediante un anuncio de información previa previsto en el artículo 134, que al menos recoja aquellos contratos que quedarán sujetos a una regulación armonizada".





dira¹.

Legearen 134. artikuluan adierazitakoaren arabera, kontratazio-organismoek aurretiazko informazioaren iragarki bat argitaratu ahalko dute, erregulazio harmonizatukoak diren eta hamabi hilabeteko epean esleitu asmo dituzten obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak ezagutzera emateko. Iragarki horiek ahalik eta lasterren emango dira argitara Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean edo kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean, behin erabakitzen denean dagozkion kontratuak egitea aurreikusten duen programa baimentzea, obra-kontratuen kasuan, edo behin aurrekontu-ekitaldia hasten denean, gainerako kasuetan.

Ikerketa-batzorde honen iritzian, aurretiazko informazioaren iragarkia kontratazioan kudeaketa ona egiten denaren mekanismo edo adierazle bat da, horrek aukera ematen baitie kontratistei aldeztu aurretik jakiteko zer kontratu lizitatuko diren.

Bere helburua betetzeko baliagarria izan dadin, iruditzen zaigu urteko kontratazio-planak kontratuen zerrenda bat jaso behar duela, bakoitzaren oinarritzko datuekin (xedeak, balio zenbatetsia, iraupena, prozedura eta kalkulatu den lizitazio-data), enpresek aldeztu aurretik izan dezaten kontratazio-planen berri, deialdiari adi egon daitezten eta eskaintzak planifikatzen joan daitezten. Nolanahi ere, prozeduraren faseetan lizitatzaileei ematen zaien informazioari dagokionez, kautela-neurri batzuk hartu behar dira; esaterako, haien sailkapenaren berri ematean, ezin zaie zehaztu zenbat eskaintzaile dauden fase bakoitzean, ez eta zein geratu diren kanporatuta ere. Azken batean, prozeduraren gardentasuna eta publikitatea orekatuta egon behar dira, kolusiozko jokabideei biderik ez emateko.

Hori dela eta, gomendatzen dugu egin dezala Hezkuntza Sailak hurrengo hamabi hilabeteetan lizitatuko dituzten kontratuen urteko plangintza, eta argitara dezala jada aipatutako informazio-iragarkia.

Horri esker, kontratazio publikoaren sistema efiziente, garden eta osoagoa diseinatzea lortu nahi da, zeinaren bidez lortuko bailizateke helburu publikoak hobeto betetzea, bai kontratazio-organismoen premien bidez, bai eragile ekonomikoak lizitazio publikoetan sartzeko eta parte hartzeko

De acuerdo con lo señalado en el artículo 134 de la ley, los órganos de contratación podrán publicar un anuncio de información previa con el fin de dar a conocer aquellos contratos de obras, suministros o servicios que, estando sujetos a regulación armonizada, tengan proyectado adjudicar en el plazo de doce meses. Estos anuncios se publicarán, lo antes posible, en el Diario Oficial de la Unión Europea o en el perfil del contratante del órgano de contratación, una vez tomada la decisión por la que se autorice el programa en el que se contemple la celebración de los correspondientes contratos, en el caso de los de obras, o una vez iniciado el ejercicio presupuestario, en los restantes.

Esta comisión de investigación considera que el anuncio de información previa es un mecanismo o indicador de una buena gestión en la contratación, puesto que ello permite a los contratistas conocer con antelación los contratos que se van a licitar.

Para ser útil a su objetivo, entendemos que el plan anual de contratación debe recoger una relación de contratos, con sus datos básicos (objeto, valor estimado, duración, procedimiento y fecha estimada de licitación), para que las empresas puedan conocer anticipadamente los planes de contratación, estar atentas a la convocatoria e ir planificando las ofertas. No obstante, en cuanto a la información facilitada a los licitadores en las distintas fases del procedimiento, se han de adoptar ciertas cautelas, como informarles de su clasificación sin concretar cuántos oferentes hay en cada fase, ni cuáles han quedado excluidos. En definitiva, la transparencia y la publicidad del procedimiento deben ser equilibradas, para no facilitar conductas colusorias.

En este sentido, se recomienda que el Departamento de Educación elabore una planificación anual de los contratos que van a licitar en los próximos doce meses y publique el ya mencionado anuncio de información.

Con todo ello, se pretende conseguir el objetivo de diseñar un sistema de contratación pública más eficiente, transparente e íntegro, mediante el cual se consiga un mejor cumplimiento de los objetivos públicos, tanto a través de las necesidades de los órganos de contratación como





baldintzak hobetuz; guztia ere, erabiltzaileentzat zerbitzu hobea lortzearren.

5. Lotekako banaketari buruz

Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren berritasun garrantzitsuenetako bat loteen arauketa da, alderantzikatu egin baitu orain arte erabili den arau orokorra; izan ere, eskatzen du espedienteen justifikatzeko zergatik ez den kontratua lotetan banatu, eta aurretiazko txostena eskatzeko lehiaren defentsarako dagokion agintaritzari. Hala, kontratazioan parte hartzeko aukera eman nahi die enpresa txiki eta ertainei (ETE). Arauketa berri horren helburua, ordea, zapuztu egin daiteke, ez badira neurriak hartzen, ez dakizkion lizitazioak xede dituen lote guztiak lizitatzailerik bakar bati esleitu, horrek praktikan eragingo bailuke ETEak kanpoan uztea.

Hori dela eta, dimentsio ekonomiko ertaina edo altua duten kontratuen lizitazioetan, hala nola kudeaketa zuzenaren kasuetan, kontratuaren xedea lotetan dibertsifikatu behar da, eta kaudimen-eskakizunak eta prestazioa gauzatzeko konplexutasuna murriztu. Hala, mesede egingo litzaieke ETEei, kooperatibei eta ekimen sozialeko bestelako entitateei, aukera emango bailitzaieke dagokion prezio publikoa zuzenean jasotzeko eskubidea duten kontratisten izaera autonomia lortzeko, eta parte hartuko duten hurrengo lizitazioetan kaudimen teknika egiaztatzea ahalbidetuko dien esperientzia pilotuko bailukete.

Lizitatu beharreko loteen kopuruari dagokionez, batzorde honetatik Hezkuntza Sailari gomendatzen diogu azter dezala modu objektibo eta xehean zein diren arrazoizko prestazio teknikoak, zein den gardentasunaren gaineko inpaktua, eta, aldi berean, bultza dezala ETEen presentzia, helburu horiek betetzetik ez duten loteetan banaketak gerta daitezkeen saihesteko eta 2012-2013 ikasturtean gertatutakoak bezalakoak ez errepikatzeko²⁹.

Adierazienez, loteetan banatzea ez da nahikoa lortu nahi den helburua lortzea bermatzeko, hau da, gaitasun operatibo handiko lizitatzailerik bati eragozteko lote askoren esleipenduna izatea, edota guztia. Hori dela eta, kontuan izan behar da araudiak³⁰ aukera ematen duela

mediante una mejora de las condiciones de acceso y participación en las licitaciones públicas de los operadores económicos, para así lograr un mejor servicio para las personas usuarias.

5. Sobre la división en lotes

La regulación de los lotes constituye una de las novedades más relevantes de la nueva Ley de Contratos del Sector Público, ya que invierte la regla general utilizada hasta ahora, exigiendo la justificación de la no división del contrato en lotes en el expediente, así como un informe previo de la correspondiente autoridad de defensa de la competencia. De este modo, se pretende abrir la contratación a la pequeña y mediana empresa (PYME). Sin embargo, el objetivo de esta nueva regulación puede verse frustrado si no se establecen medidas para que un mismo licitador no pueda adjudicarse todos los lotes objeto de licitación, lo que en la práctica supondría dejar fuera a las PYME.

Por ello, en la licitación de contratos con dimensión económica media o alta, como el de la gestión directa de los comedores escolares, es necesario preservar la diversificación en lotes del objeto contractual, reduciendo los requisitos de solvencia y la complejidad ejecutiva de la prestación, favoreciendo así a las PYME, a las cooperativas u otro tipo de entidades de iniciativa social, permitiendo que alcancen la condición autónoma de contratistas con derecho a la percepción directa del precio público correspondiente y que acumulen una experiencia que les permita acreditar solvencia técnica en sucesivas licitaciones en las que participen.

En lo que respecta al número de lotes que se tiene que licitar, esta comisión recomienda al Departamento de Educación analizar de forma objetiva y detallada cuáles son las prestaciones técnicas razonables, el impacto sobre la transparencia, y, al mismo tiempo, favorecer la presencia de las PYME, para evitar divisiones en lotes que no permitan conseguir estos objetivos, como la realizada en el curso 2012-2013⁶¹.

Como se ha indicado, la división en lotes no asegura suficientemente el objetivo perseguido de impedir que un licitador con grandes capacidades operativas logre una gran concentración de lotes adjudicados a su favor, si no todos ellos. Por esa razón, es importante tener presente la posibilidad





lizitzaile batek eskaintzak aurkezten dituen loteen kopurua eta lizitzaile bakoitzari esleirik dakizkiokeen loteen kopurua mugatzeko, pilaketa hori saihestearren. Edonola ere, neurri horiek alde aurretik justifikatu behar dira, ezohikoak direla jotzen delako.

Kontuan izan behar da kontratuaren xedea lotetan banatzearen helburu garrantzitsuenetako bat kaudimen-eskakizunak murriztea dela, lizitazioan lehia handiagoa egon dadin. Lehiaren agintaritzek hainbatetan adierazi duten bezala, kaudimena subjektiboa da kontratu bakoitzean, eta ez dago eskatu beharreko kaudimenari buruzko arau orokorrik. Kaudimenaren deskribapen zehatza egiterik ez dagoenean, erreferentziekin batera "edo baliokidea" aipamena jar daiteke, lizitzaileen arteko diskriminazioak saihesteko. Edonola ere, ezinbestekoa da kaudimena argi zehaztua egotea eta eskatuko den gutxienekoa ezartzea, baldintza-agirietan gutxieneko kaudimenik zehazten ez bada subsidiarioki legearen 87.3 artikuluan ezarritakoak aplikatuko baitira. Bestalde, lehia errazteko eta eskaintza kopuru handiagoa lortzeko, hainbat kaudimen-irizpide alternatibo ezartzea gomendatzen da, justifikatuak, arrazoizkoak, ez-diskriminatzaileak eta kontratuaren tamaina eta xedearekiko proportzionalak, irizpide bakar baztertzailer baten ordean. Eta, edozein kasutan, ahaleginak egingo dira Eusko Jaurlaritzako kontratazio-organismoek kaudimen-baldintza berak ezar diezazkieten funtsean berdinak diren kontratuei, enpresak modu desberdinean ez tratatzeko, hori justifikatzea zaila baita.

Beste neurri osagarri bat izan liteke esleitu beharreko gehieneko bolumen ekonomikoa bat finkatzea, eta, hura gaindituz gero, esleipena bigarren lizitzaileari pasatzea, lehentasun-ordena baten arabera, zeina klausula-agiriak finka bailezake. Klausula-agirian adierazi behar da zenbat lote esleirik dakizkiokeen, gehienez, lizitzaile berari, eta zeintzuk diren esleipena zenbait lizitzailearen artean banatzeko irizpide objektiboak eta ez-diskriminatzaileak.

Azkenik, 99.4 artikulua azken paragrafoak aukera ematen du lote batzuk erreserbatzeko "enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxieneko ehuneko

que ofrece la normativa⁶² de limitar el número de lotes a los que un licitador puede presentar la oferta y el número de lotes que pueden adjudicarse a cada licitador para evitar que se produzca esa concentración, si bien dichas medidas se deberán justificar previamente por considerarse excepcionales.

Hay que tener en cuenta que una de las finalidades más importantes de la diversificación en lotes del objeto contractual es la de reducir los requisitos de solvencia para conseguir que haya una mayor concurrencia en la licitación. Tal y como vienen indicando las diferentes autoridades de la competencia, la solvencia es subjetiva de cada contrato, y no existe una regla general de solvencia a exigir. Cuando no sea posible realizar una descripción precisa de la solvencia, las referencias pueden ir acompañadas de la mención "o equivalente" para evitar la discriminación entre licitadores. En cualquier caso, es imprescindible que la solvencia esté claramente determinada y que se establezca el mínimo exigible, ya que, si los pliegos no concretan un mínimo de solvencia, se aplicarán de forma subsidiaria los establecidos en el artículo 87.3 de la ley. Por otra parte, con el objeto de favorecer la competencia y obtener un mayor número de ofertas, se recomienda fijar una pluralidad de criterios de solvencia alternativos justificados, razonables, no discriminatorios y proporcionales a la dimensión y objeto del contrato, en lugar de un único criterio excluyente. Y, en todo caso, procurar que los órganos de contratación del Gobierno Vasco exijan requisitos de solvencia similares para contratos sustancialmente iguales entre sí, con el fin de evitar tratamientos desiguales entre empresas difícilmente justificables.

Otra medida complementaria podría ser la de establecer un máximo de volumen económico adjudicado, a partir del cual la adjudicación pasara al segundo licitador, según un orden de preferencias, que podría fijar el pliego. El número máximo de lotes de los que se pueda resultar adjudicatario deberá ser indicado en el pliego, así como los criterios objetivos y no discriminatorios de distribución de la adjudicación entre varios licitadores.

Finalmente, el artículo 99.4, en su último párrafo, permite la reserva de algunos lotes "para centros especiales de empleo o para empresas de inserción, o un porcentaje mínimo de reserva de la ejecución de estos contratos en el marco de





bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programetarako [...]. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erakundeentzat, aipatutako xedapenean ezarritako baldintzetan".

Nolanahi ere, kontratua behar bezala gauzatzeko kontratazio-organismoak beharrezkotzat jotzen duen muga orok guztiz arrazoituta eta egiaztatuta geratu behar du kontratazio-espeditentean. Horretarako, lehenetsuna emango zaie formulak aplikatuta balioets daitezkeen kontratuaren xedarean ezaugarriei, eta argi eta garbi azalduko da zer helburu lortu nahi den horietako bakoitzarekin.

6. Kontratazio-epaimahaiei buruz

Kontratazio-epaimahaiaik gardenak izan behar dira, hala osaeran nola jardueran. Lehiaren Euskal Agintaritzak hauteman ditu dagoeneko eragile ekonomikoek kolusioa gauzatzeko erabiltzen dituzten faktore eta teknika batzuk, bai eta hori prebenitzen laguntzen duten lizitazioaren diseinuko ezaugarri batzuk ere. Ildo horretan, ekintza hauek gauzatzea proposatzen dugu: Administrazioaren langileei kolusiozko jarrerari buruzko prestakuntza ematea; azken esleipena ez uztea agiri teknikoak edo eskaintza publikoaren agiriari definitu dituen lantaldearen esku; aurreko lizitazioen informazioaren erregistro sistematikoa egitea, patroia, joera eta adierazle susmagarrien jarraipena egiteko; eta kanpainak abiaraztea, eskaintza-egileei jakinarazteko, ohartarazpen gisa, edozein jokabide susmagarri aztertuko dela, eta kolusioaren ondorioz zer zehapen ezartzen diren.

7. Kontratuak *a posteriori* kontrolatzeari buruz

Batzorde honek uste du esleipen-prozesuaren kontrol handiagoa izan behar dela eskola-jantokien zuzeneko kudeaketa-zerbitzuan gertatu direnak bezalakoak ez errepikatzeke lehen bermea.

Nahiz eta *a priori* kontrolatu behar den nori esleitzen zaizkion kontratuak, haien segimendua ere egin behar da, baita kontratuak kautelaz indargabetu ere, itunak egin direlako susmo funtsunak izanez gero.

Bestalde, batzorde honek nabarmendu nahi

programas de empleo protegido [...]. Igualmente se podrán reservar lotes a favor de las entidades a que se refiere la disposición adicional cuadragésima octava, en las condiciones establecidas en la citada disposición".

En todo caso, cualquier limitación que el órgano de contratación considere necesaria para la correcta ejecución del contrato ha de quedar muy justificada y acreditada en el expediente de contratación, dando preponderancia a las características del objeto del contrato que puedan valorarse mediante la aplicación de fórmulas y explicando claramente el objetivo perseguido con cada uno de ellos.

6. Sobre los tribunales de contratación

Los tribunales de contratación deben ser transparentes tanto en la composición como en su actuación. La Autoridad Vasca de la Competencia ya ha detectado una serie de factores y técnicas que los operadores económicos suelen utilizar para realizar la colusión, así como características del diseño de la licitación que pueden ayudar a prevenirla. En esta línea, proponemos impartir formación al personal de la Administración en técnicas de detección de conductas colusorias; no permitir la delegación de la adjudicación final en el equipo que haya definido los pliegos técnicos o los pliegos de la oferta pública; realizar el registro sistemático de información de licitaciones anteriores con el mayor detalle posible para hacer seguimiento de patrones, tendencias e indicadores sospechosos; y poner en marcha campañas para informar a los oferentes de que cualquier conducta sospechosa será analizada y de las sanciones aparejadas a la colusión, a modo de advertencia.

7. Sobre el control *a posteriori* de los contratos

Esta comisión considera que un mayor control de los procesos de adjudicación ha de ser la primera garantía para que no se repitan hechos como los que se han producido en la gestión del servicio de gestión directa de los comedores escolares.

Si bien *a priori* se debe controlar a quién se adjudican los contratos, también se debe hacer un seguimiento de ellos, incluso llegando a suspender cautelarmente los contratos en caso de que existan sospechas fundadas de concertación.

Por otra parte, esta comisión quiere llamar la





du posible dela enpresaren batek iraganean edo gaur egun eskola-jantokietako loteen esleipena lortu izana eskaintzak batez besteko ohiko kostuaren oso azpitik dauden prezioetan eginda, eta, beraz, lehiakideak merkatutik kanporatzeko xedearekin, enpresa esleipendunei galera ekonomikoak eragin arren³¹. Aukera hori ikerketa-batzorde honen eskuetan dagoen txosten³² batean jasota dago. Hortaz, egokia da Eusko Jaurlaritzari gomendatzea jardun dezala arreta eta zorrotasun handiagoz balizko egoera horiek kontrolatzean, izan dezaketen larritasunagatik eta enpresa lizitatuzaileen arteko lehia leial eta garbiaren alorrean duten eragin negatiboagatik.

8. Zehapenei buruz

Klausula-agiriek iruzurrezkoak diren eta Administrazioarentzat kaltegarriak diren praktiketarako zehapenak jaso behar dituzte. Enpresen ituntze-praktikak kalte egin badie dirukutxa publikoei, eta herritarrei gainprezioa eragin badie, hori zehatu egin behar da, eta egindako kaltea, konpondu. Klausula-agiriek, beraz, konpontze-neurriak planteatu behar dituzte, ikerketa-batzorde honen xede izan diren gertakariak berriz gerta ez daitezen, edo Administrazioari egin zaion galera ekonomikoa itzul dakion.

ONDORIOAK

1. Egiaztatuta geratu da eskola-jantoki publikoen kudeaketa-zerbitzuaren enpresa esleipendunek kolusio-praktikak gauzatu zituztela 2003 eta 2015 artean. Praktika horiek Lehiaren Defentsarako Legearen arau-hauste oso larri gisa zehatu zituen Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta zehapen horiek berretsi egin zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak.
2. Egiaztatuta geratu da eskola-jantokien zerbitzuaren kudeaketan justifikatu gabeko 70,8 eta 80,2 milioi euro arteko gainkostua izan zela 2003 eta 2015 bitartean. Galera horretatik, 28,7 eta 33,7 milioi artean Hezkuntza Sailari eragin zitzaizkion, eta 42,1 eta 48,5 milioi artean familiei, jantokiko kuoten bidez.

atención sobre la posibilidad de que en el pasado o en el presente alguna empresa haya sido adjudicataria de lotes de comedores escolares sobre la base de realizar ofertas con precios muy inferiores al coste medio habitual y, por lo tanto, que pudieran realizarse para expulsar a otras competidoras del mercado, aun a costa de representar pérdidas económicas para las empresas adjudicatarias⁶³. Esta posibilidad aparece recogida en un informe⁶⁴ incorporado a la documentación que obra en poder de esta comisión de investigación, por lo que procede recomendar al Gobierno Vasco un mayor celo y rigor en el control de estas hipotéticas situaciones, por su potencial gravedad y su negativa influencia en un marco de competencia leal y honesta entre las empresas licitantes.

8. Sobre las sanciones

Los pliegos deben recoger sanciones para aquellas prácticas fraudulentas y dañinas para la Administración. Si la práctica de la concertación de las empresas ha supuesto una merma a las arcas públicas y un sobreprecio a la ciudadanía, esto debe ser sancionado, y el daño causado, reparado. Los pliegos, por tanto, deben plantear medidas de reparación para que no se repitan los hechos que han sido objeto de la presente comisión de investigación, o para que la Administración sea resarcida del quebranto económico sufrido.

CONCLUSIONES

1. Queda acreditada la práctica colusoria cometida por las empresas adjudicatarias del servicio de gestión de los comedores escolares públicos entre 2003 y 2015, sancionada como infracción muy grave a la Ley de Defensa de la Competencia por la Autoridad Vasca de la Competencia, confirmada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y avalada por el Tribunal Supremo.
2. Queda acreditado un sobrecoste no justificado en la gestión del servicio de comedores de entre 70,8 y 80,2 millones de euros entre 2003 y 2015, de los cuales entre 28,7 y 33,7 millones se habrían quebrantado al Departamento de Educación, y entre 42,1 y 48,5 millones de euros se habrían detruido a las familias a través de las cuotas de comedor.





3. Egiaztatuta geratu da 2003 eta 2017 artean Kudeaketa Ekonomikorako zuzendari, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuorde eta Hezkuntzako sailburu izan diren pertsonen erantzukizun politikoa, Administrazioak ezer egin ez izanaren arduradun gisa, iraganean, ituntzearen zantzuen aurrean, eta gaur egun, Administrazioaren ondare-galeraren aurrean.
4. Egiaztatuta geratu da beharrezkoa dela eskola-jantokien zuzeneko kudeaketa-sisteman aldaketa esanguratsuak gauzatzea, hala kudeaketa-sistema deszentralizatu bat ezartzeari dagokionez nola sistemaren finantzazioko gardentasuna handitzeari, etorkizuneko kontratazio-agirietako irizpide teknikoei edo esleipenen kontrol eta segimendurako mekanismo zorrotzak ezartzeko beharri dagokienez.
3. Queda acreditada la responsabilidad política de las personas que entre 2003 y 2017 han ocupado la dirección de Gestión Económica, la viceconsejería de Administración y Servicios y la consejería del Departamento como responsables de la inacción pasada de la Administración ante los indicios de concertación y por su falta de respuesta en el presente ante el quebranto patrimonial sufrido por la Administración.
4. Queda acreditada la necesidad de introducir cambios relevantes en el sistema de gestión directa de comedores escolares, tanto en lo referente a la implantación de un sistema de gestión descentralizado como en lo relativo a una mayor transparencia en la financiación del sistema, en los criterios técnicos de los futuros pliegos de contratación o en la necesidad de establecer mecanismos rigurosos de control y seguimiento de las adjudicaciones.





ERREFERENTZIAK

¹Agindua, 2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmaitetako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituen.

²Hezkuntza Saileko arduradun teknikoak, bere agerraldian, ezin izan zuen frogatu beharrezko akreditazioa zuenik baldintza higieniko-sanitarioak ebaluatzeko eta "auditoreburu" gisa jarduteko, ez eta azken egiteko hori jasota zegoenik ere bere lanpostuaren monografian bildutako egiteko profesionalen artean.

³Enpresa lizitatuak homologatzeko auditoretzetan aholkularitza teknikoak emateko kontratatutako laborategiak bazuen analisi bromatologikoak egiteko akreditazioa, Akreditazioen eta Egiaztatapenen Erakunde Nazionalak (ENAC) emandakoa, baina ez kalitate- edo egiaztatze-auditoretzak egitekoa.

⁴EAEJANren epaiak adierazi zuen "kaudimen-baldintzak eta exekuzio-baldintzak nahasi" egiten zirela, homologazio-prozesuan enpresei gutxienez 3 eta 4 milioi euro arteko zirkulatzailea izatea eskatzen baitzitazien beren kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko, zerbitzuaren enpresa esleipendunetako baten ordezkariak adierazi zuzenez.

⁵Lehiaren Euskal Agintaritzako zuzendari ohiak bere agerraldian esan zuzenez, lizitazioaren klausula-agiriak zerbitzuaren bidez lortu nahi den helburuarekiko proportzionalak diren eskakizunak jaso behar ditu, "bestela diskrezionalitateak arbitrariotasunera pasatzen baikara". Izatez, LEAren gomendioei jarraikiz 2015-2016 ikasturterako lizitazioko homologazio-baldintzetan egindako jaitziak ez zuten inolako murrizketarik eragin zerbitzuko elikagaien segurtasunaren aldetik, aurreko ikasturteekin alderatuta.

⁶Enpresa esleipendunetako baten ordezkariak bere agerraldian aitortu zuzenez, logistika irizpide erabakigarria zen eskaintza baloratzeko sisteman, eta gertutasunaren arabera esleipena faboratzen zuen, halako moldean non "prezioaren jaitziak ez zuten ia eraginik". Izatez, 2012ko lizitazioaren baldintza-agirian kendu egin zen logistikan oinarritutako balorazio-irizpidea, eta horren ondorioz loteen gutxienez % 50en kasuan aldatu egin zen enpresa esleipenduna. Edonola ere, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (OARC), gerora, baliogabetu egin zuen lizitazio-prozesua, baldintza-agirian gai honekin loturarik ez zuten beste gabezia batzuk zeudela eta.

⁷Ikus 4. egitate frogatua.

⁸Sailburu ohi batek bere agerraldian esan zuen ikastetxe berriak sukaldari gabe eraikitzen direla ("officearekin bakarrik"), eta beste sailburu ohi batek esan zuen menu beroak sustatzen direla, "hobeak direlako".

⁹Enpresa esleipendun baten ordezkariak bere agerraldian aitortu zuen hotzko catering-lerroa "beroa baino seguruagoa" dela, baina azken horren alde egiten zela, lehenengoan "elikagaiak gordetzeko hozkailuak eta berriz berotzeko labe termikoak behar" direlako, eta horrek "energia-konsumo handiagoa" dakarrelako ikastetxeko instalazioetan. Aitortu zuen, halaber, *in situ* prestatutako menuak "aniztasun handiagoa, kalitate organoleptiko handiagoa eta, oro har, kalitate hobea" eskaintzeko aukera ematen dutela.

REFERENCIAS

³³Orden de 22 de marzo de 2000, del Consejo de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulan los comedores escolares de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los niveles de enseñanza obligatorios y Educación Infantil (2.º ciclo).

³⁴El responsable técnico del Departamento de Educación no pudo demostrar en su comparecencia que dispusiera de la acreditación necesaria para evaluar requerimientos higiénico-sanitarios ni para ejercer como "auditor-jefe", ni tampoco que este último cometido estuviera entre las tareas profesionales recogidas en la monografía de su puesto de trabajo.

³⁵El laboratorio contratado para realizar la asistencia técnica en las auditorías de homologación de las empresas licitantes disponía de una acreditación de la Entidad Nacional de Acreditación y Certificación (ENAC) para la realización de análisis bromatológicos, no para la realización de auditorías de calidad o de certificación.

³⁶La sentencia del TSJPV indicaba que "se confunden requisitos de solvencia con requisitos de ejecución", al referirse a que en el proceso de homologación se exigía a las empresas disponer de un circulante mínimo de entre 3 y 4 millones de euros para acreditar su solvencia económica, según declaró el representante de una de las empresas adjudicatarias del servicio.

³⁷En su comparecencia, la exdirectora de la Autoridad Vasca de la Competencia afirmó que los pliegos de condiciones de la licitación deben contener exigencias proporcionales al objetivo que se persigue con el servicio, porque "si no lo son, se pasa de la discrecionalidad a la arbitrariedad". De hecho, en el pliego de condiciones de los requisitos de homologación introducidos en la licitación del curso 2015-2016 por recomendación de la AVC no supuso ninguna merma en la seguridad alimentaria del servicio respecto a los cursos anteriores.

³⁸El representante de una de las empresas adjudicatarias reconoció en su comparecencia que la logística era un criterio determinante en el sistema de valoración de las ofertas y favorecía la adjudicación por cercanía, hasta el punto de que "la bajada del precio no influía apenas". De hecho, en el pliego de condiciones de la licitación de 2012 se eliminó la logística como criterio de valoración y el resultado de la adjudicación fue que al menos un 50 % de los lotes cambió de empresa adjudicataria, aunque posteriormente el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales (OARC) anuló el proceso de licitación por otras deficiencias de los pliegos ajenos a esta cuestión.

³⁹Ver hecho probado n.º 4.

⁴⁰Un exconsejero declaró en su comparecencia que se construyeron los centros educativos nuevos sin cocinas ("solo con office"), y una exconsejera reconoció que se promovían los menús en caliente "por ser mejores".

⁴¹El representante de una de las empresas adjudicatarias reconoció en su declaración que la línea de catering en frío "es más segura que la caliente", pero que se optaba por esta última debido a que en la primera "se necesitan cámaras de almacenamiento y hornos de regeneración térmica", lo que supone "un mayor consumo energético" en las instalaciones del centro educativo. También reconoció que los menús cocinados *in situ* permiten "mayor variedad, más calidad organoléptica y más calidad en general".





¹⁰Enpresa esleipendun baten ordezkariak bere agerraldian onartu zuen catering beroko menuen kasuan elikagaiak kontserbatzeko temperatura ekoizpeneko puntu kritikoa zela, eta, ondorioz, "distantziaren arloko mugek ekoizpenaren muga" markatzen dutela.

¹¹Eskola Jantokiei buruzko 6/2013 espedientearen ebazpena, Lehiaren Euskal Agintaritzarena, 2016ko otsailaren 4koa, zuzenbideko oinarriak, 117. kontuan hartuzkoa, 61. or.

